

HIESaren kontrako Nazioarteko Eguna MANIFESTUA

Abenduaren 1ean HIES Eguna izaten dugu munduan; pandemia horrek harrapatu dituen pertsonak gogoratzen ditugu, gure artean daudenak eta jada ez daudenak, eta gure herrian gaur bizi den egoerari erreparatzeko deia egiten dugu.

Gaur egungo panorama ez da duela urte batzuetakoa, itxaropenik eza bizitza igurikapen eta gurari bihurtu denez gero. Alabaina, ez da eragotzi gaixotasunak urtero mila pertsona baino gehiago eroatea gure artean, eta urtero ia hiru mila diagnostiko berri egitea.

Munduan 33 milioi pertsona bizi dira VIH eta HIESarekin, eta % 50 baino gehiago 15 eta 49 urte arteko emakumeak dira. Kopuru horiek adierazten dute pandemia emakumetu dela, eta emakumeak arreta berezia behar duela. Azpimarratuko dugu fenomeno hori ez da garatzen ari diren lurraldeetara soilik mugatzen.

Urte bakarrean 2,7 milioi infekzio berri izaten dira, eta bi milioi pertsona hiltzen dira horregatik. Sahararik beherako Afrikakoak dira hildako horien % 70, baina Ekialdeko Europan eta Asian ari da, gaur egun, azkarren hazten.

Infekzio berrien % 45 15 eta 24 urte arteko gazteek hartzen dituzte, eta murriztu beharrean, gero eta handiagoa da amek kutsatutako seme-alaben kopurua, halako transmisioa kontrolatzeko tresnak badauden arren.

Gaur egun tratamenduei dagokienez etorkizun itxaropentsua iradokitzen duten balizko aurrerapenen aurrean gaude, baina aukera berri horiek ia eskurazekin dira jende askorentzat, gaixotasunak fisikoki izugarri hondatu dituelako edo, gizartean baztertuta eta alboratuta egonik, halakoetara iristea zailtzen zaielako.

Farmakologian aurrerapen handiak egin dira, teorian VIH eta HIES duen jendeak bizitzen segitzeko eta gizarteratzeko aukera ematen dutenak, baina, zoritxarrez, tentsio-giroa aurkitzen dute VIHari loturiko aurreiritziek, estigmak eta bazterketak erabateko herritar izateko aukerak murrizten dizkienez gero. Gaur gogoratzen dugu VIH eta HIESak kaltetutako pertsonen Oinarrizko Eskubideak etengabe urratzen direla, batzuetan oinarrizko gizarte eskubideak ukatuz, hala nola, gizarte, osasun, prestakuntza, lan eta parte hartzeko eta aisialdiko zerbitzuetarako ateak itxiz, edo etxebizitza eskuratzeko baldintza berdinak izatea, edo aseguru bat kontratatzea eragotziz VIHrekin bizi direlako. Izan ere, patologia hori txarretsitako eta arautik kanpoko jokabideekin lotzen da oraindik.

Horregatik aztertu behar dira prebentzio politikak eta garatu beharreko ekintzak ikuspegi holistikotik, pertsona bakoitzaren berezitasunak kontuan hartuta. Norbait transexuala edo homosexuala izateak, preso egoteak, drogen mende egoteak edo prostituzioan aritzeak, pobrezia mugan egoteak, edo emakume izateak zaurgarriago egiten du, bazterketa bikoitza dakarkien aldetik, eskubideak gizarte edo pertsona baldintzen arabera neurtzen zaizkienez gero.

“Ez dugu inoiz ezberdintasuna markatzea lortuko HIES sindromea gainerako guztitik aparte kokatzen badugu”, baietsi zuen Michel Sidibék lehen bileran parte hartu zuenean Ginebran ONUSIDAKo Zuzendari Exekutibo gisa. Urte hauetan hartutako lan eskarmentuarekin giza eskubideak sustatzea eta babestea VIH transmititzeko eta HIESaren ondoreak gutxitzeko funtsezkoa dela baietsi dezakegu, eta beharrezkoak dira kaltetutakoen duintasuna babesteko eta osasun publikoko helburuak, alegia,

nagusiki VIHrekin kutsatzeko ahultasuna murriztea eta pandemiak gizarte, familia eta lan esparruetan dituen ondore okerrak arintzea, lortzeko. Giza Eskubideak eta osasun publikoa bat datoz pertsona horien osasuna eta ongizatea sustatzeko eta babesteko helburuan, zerbitzuak aukera berdinetan eskura izatea, informazioa, hezkuntza eta gaitasuna hartzeko eskubideak denoi bermatzea, eta zer eskubide duten jakitea ere. Horregatik, ONUSIDAREN aurtengo leloa *Denon eskura eta giza eskubideak* da.

VIH eta HIESaren esparruan lan egiten duen mugimendu herritarra osatzen dugun erakundeon ustez gizartea aldatu behar da, gizonak eta emakumeek aldarazi behar dute kolektiboetatik, hedabideetatik, eta ardura politikoak dituzten pertsonak ere bultzatu behar dute aldaketa hori. Sektore horietako bakoitzaren ekimenek elkar elikatu eta aberastu dezakete, eta sinergiatik bake, elkar ulertze eta diferentzienganako errespetuzko harremanak sor litzakete, kolektiboan eragiteko eta errespetu, inplikazio eta konpromiso handiagoko kotak lortuz.

Arduradun politikoek segitu behar dute ekimenak eta gizarte eta osasun ekintzak bultzatzen eta hobetzen egoera hori arintzeko, egunero VIH eta HIESaren eremuan lan egiten dugun eta, beraz, errealitatea zuzenean ezagutzen dugun erakundeak kontuan hartuta.

Hedabideen eginkizuna funtsezkoa da, eta inplikazio iraunkorra gakoa da gure mezua dena zabalduko badugu, gizarte eskubideak denon eskura eta denok gozatzeko egon daitezkeen dimentsiotik.

Horregatik, beharrezko eta behineneko deritzogun aldaketa hori errespetura, elkarrizketara eta tolerantzia osasungarrira bideratu behar da, arazo bat konpontzeko gehiago inplikatzera, egunetik egunera agerikoago eta gertuago dugun sektore ahulenen, VIH eta HIESak gogorren kolpatzen dituenen errealitatea ezagutzetik abiatutako konpromiso solidarioa hartzera. Heriotza, min eta sufrimenduko ia hogeita hamar urteren ostean, jarraitu behar dugun erabakitasunez jokatzeko gako oso eta gizatiarragoekin. Berdintasunezko tratua aldarrikatzen dugu, bazterketarik gabea, pertsona horien eskubideak hautsiko ez dituenak.

Guretzat oinarrizkoa da denontzako lekua dagoen gizartea, gizarte trinkoa eratzea, kontzientzia hartuta denok aurrera egingo badugu.

CESIDA